

BIZI ALA IL?

Euria, txingorra, trumoa, tximistak, otza. Negu gorria. Inguraetako mendi lerroak zuri. Urtarrillaren lenengo domeka ta Larrako eleizatxoak gaineska. Berrogeita amabost gazteek artzen dabe sendotzako sakramentua. Inoiz ez da izan olango ospakizunik Larran. Bertoko parrokiak laster beteko ditu amabi urte ta aurten lenengoz ospatu izan dau sendotzako sakramentua.

Ixe iru urtetan katekesian ibilli diran neska-mutikoek artu izan dabe konfirmazinoa. Egia esan, ez daukagu emen sendotzako katekesirik Gazte katekesia daukagu ta onen elburua: Kristori jarraitu eleiza eginez, au da, komunitateak egifiez. Ez dago beste urtenbiderik kristau izateko. Ezin leike sinismena bakarrik bizi, ekipoan izan ezik. Gazte katekesian, sendotza etapa bat baino ez da. Naiz-ta askorentzat azken etapa besterik izan ez. Ta ori burutik kentzea ez da ain lan makala. Ta orretan diardu gaurko kristau eziketak.

Geienak 16-17 urteko neska-mutikoak izan dira. Bi 21 urtekoak ta lau 15 urteko gaztetxoak. Bai fede maillan ta bai giza maillan eldutasun naiko desberdinekoak. Gabonetan, bertoko Gogartetxean iru eguneko prestamcna euki izan eben. Izan ziran goraberek, Ume Errugabeen gaubean zer esanik ez... Jardunaldietan inkesta berezi bat egin jaken sendotzako sakramentua-ren ondorio ta betebearrei buruz. Inkesta zoriontsu orrek ainbat itaun eukazan. Orretariko bat auxe izan zan:

«Knstoren aide bizia emoteko ala bera ukatzeko zorian aurkituko

bazinake, zer aukeratuko zenduke?»?

Gogoan eukitzekoa da, inkesta ori, bakarki, ixiltasun osoan ta otoiz giroan egin zala. Ta gaifera, inkesta izenpetua. Onexeeek izan ziran sendotza artu **bezperetan** emondako erantzunak. Ta-ket-artean, izena ta urteak agertzen dira:

- «Bai, dudarik gabe, gertu nago Kristoren aide neure bizia emoteko» (1.17)
- «Jesus niretzako dan dana dalako, bere aide odola emoteko gertu nago» (M. 17)
- «Bai, Jesusi azkenerano jarraitzea nai neuke neure bizitza emon» (C. 16)
- «Uste dot baietz, olako situazino baten Kristoren aide jokatu neukela-ta **nago* (I. 16)**
- «Bestien onerako balitzake, bai» (K. 17)
- ~«Ez dakit olako momentu baten zer egingo neuken» 0.1. 17)
- «Ez daukat olako adorerik, ez neuke iflor gaitik be neure bizitza emongo» (E.16)
- «Baliteke, ez dakit* (M. 18)
- «Ez dakit zer egingo neuken, baina badira ainbat Jesusen aide euren odola emon dabezanak» (J. 17)
- «Teoriz bai, baina olako momentuan nire koldarkeriak geiago egingo leuskit» (G. 16)
- «Ez dakit zer egingo neuken» (M. 17)
- «Kemena ta indarra falta yataz ta olako situaziftoan atzera egingo neuke» (A. 16)
- «Nai neuke Jesusen aide odola emoterario maitatzea, baina ez dakit zelakoa izango litzaken nire erantzuna» (M. 17)
- «Ez dago gauza ederragorikJesusen aide odola emotea baiflo» (F.J. 17)
- «Ez naz gauza, itaun oneri erantzuteko» (J.A. 17)
- «Zegaitik ez, berak bere bizia gure aide emon eban ezker» (J. 17)
- «Jaungoikuaren grazi berezia artzen ez badot, ez dot uste kemenik eukiko neukenik» (J. 17)
- «Ez dot uste orrenbesteraflo nire adorea eltzen danik» (A. 17)
- «Batzutan bai ta bestetan ez» (M. 16)
- Bai, Jesusen aide urtengo neuke» (I. 15)
- «Oso zailla da erantzutea, orain nai dodana auxe da: neure sinismena geroa-go ta geiago sendotzea» (J. 17)
- «Oso tpstea izango litzake Jesus ukatzea, baina neure bizitza emoterario be...» (M.I. 18)
- «Asko maite dot Jesus baina ez daukat erantzunik, ainbat gauza eder nai di-

- tut bizitza onetan bete-ta» (M.L. 15)
- «Ni neu ez naz gauza orrenbesterafio, ez dot nai inondik be olako situazino baten aurkitzerik» (S. 21)
 - «Jesus ukatu baino naiago dot neure bizitza galdu» (M.A. 16)
 - «Ez naz bat ere ausartia» (L. 16)
 - «Ez dot .neure bizitzan onetaz pentsau be egin, ez neuke nai olako ordu baten aurkitzerik» (A. 16)
 - «Geiago maite dot neure bizitza, Jesus baino*» (M. 16)
 - «Ordua eltzen danian, pentsau bear, zer egin» (I. 16)
 - «Ez daukat erantzunik» (I. 17)
 - «Benetan gauza miresgarria izango litzake Jesusen aide odola emotea baina ni neu, ez dot uste, orrenbesterafio gauza nazanik» (J. 16)
 - «Bizi izateaz itzelako poztasuna sentitzen dot ta ez neuke neure bizitza Jesusen aide emongo» (C. 16)
 - «Naiago dot neure bizitza galtzea, Jesus ukatzea baino» (Y. 17)
 - «Pregunta onek ondatuta itxi nau» (M. 17)
 - «Bildurtuta naukazu pentsetan zelakoa izango litzaken nire erantzuna, ez dot nai olako situazifiorik, ez dot uste neure bizitza emongo neukenik» (A. 17)
 - «Oraingozez nago Jesusen aide odola emoteko, ez orixe» (M.V. 17)
 - «Itaun oneri makina «buelta» emoten ari naz ta azkenean beti ezetza» (M. 16)
 - «Ez dot ifioiz olako preguntarik euki ta lur-jota nago, erantzunik gabe» (MP. 16)
 - «Pentsau ta pentsau nago» (Y. 16)
 - «Ain egoista nazanez, lartxo maite dot neure bizitza, baina Jesus ukatzea be,,» (I. 15)
 - «Bai, Jesusen aide emongo neuke neure odola ta bizitza guztia» (L. 16)
 - «Nai neuke, ez dakit ordu aretan zer egingo neuken» (I. 17)
 - «Jesus ukatuko baneuke, ez nintzake bizitza gu?tian zoriontsu izango» (J.A. 17)
 - «Ez dakit, baina orain ez daukat lotsarik Jesusen aide neure aufcgia agertzeko» (M. 17)
 - «Ni neu ez naz gauza iftoeren aide neure bizitza eskeintzeko*» (S. 16)
 - «Ez dakit, baliteke ordu artan Jesusen aide egongo nintzakela» (J. 16)
 - «Naiz-ta penaz, olako momentu baten Jesus ukatuko neuke» (I. 15)
 - «Jesus ukatzea neure bizitza ta nortasuna galtzea izango litzake» (A. 16)

Orra or erantzunak. Batzuk eziran arriskatu erantzuten. Inkesta orretan beste ainbat itaun garrantzitsu ta erantzun eder be

badira, baina ez noakizue orretaz gaurkoz beintzat ezertxo be aipatzen.

Urtarrillaren iruan, arratsaldeko zazpiretan, Juan Mari Uriarte, Bilboko Gotzain Laguntzailleaz batu ziran gazte guztiok. Alkar-izketa sakona ta alaia. Juan Mari, gotzain jaunak, birtute oso bereziak ditu gazteen artuemonetarako. Inok baino obeto daki egi biribillak botaten, baita ziria sartzen, ixerik konturatu gabe. Mesedegarri aundiko batzarra izan zan gazteentzat. Ainbat buru auste artean, badauko gure gotzainak meritoa, olango batzarretan be parte artzeko. Pozaren pozez igarogenduzan ordu bi inguru alkartuta. Ez gara inoiz batzar orretaz aartzuko.

Azkenian eldu jakun urtarrillaren bosta, Eleizkizun ederra, euskeraz ta erderaz. Sermoia be bietara, sakona ta atsegingarria. Sermoiaren azken berbak, baiketara buruz, etikazko gogoketa eder batzuk izan ziran ta komunikabideek, an ta enien, laster zabaldu ebezan. Ezta aartzutekoa, esaterako gogoketa au: «Erri onek badau eskubiderik gainean ditun ainbat eta ainbat problema ta buru-austeren artean, arnasa pizkat artu al izateko. Ezta zuzena, ezta gizonari ez erriari dagokiona be, era orretako kezka ta zantzaren bildurpean eukitea».

A. Oka